


«**UHING BERRI**», Juan San Martin



Poesi sorta trinkoa hauxe.

Poesi gaztea da, ta gazteak, egiazkoa danean, zaharrak baino ezpal gutxiago izaten du; gurea bezelako erri zaharreak gazteak ere bai, dirudenez.

Noski, Juan San Martinek ere izan du begia.

Bilduma onetan tokia arkitzeko bi ari jarri ditu: bata, kronolojikoak, olerkiak 1930-tik geroz jaloak izatea ta 1964 ingurutik ahal ta onuntz ezagutu ari diren lanak izatea, ta beste, poesi hau era-berrikoa izatea, bai egin-bidean eta baita protesta-giroari dagoakionean ere.

Ta gaurko olerkari gazteetatik 25-ek baldikuntza ohiek betetzea ez da gutxi.

Orrerako aukera zirtasun osoan egitea zaila izaten da. Inork ez du objektibitatearen mailu-biderik. Juan San Martinek ere behar ba da egingo zituan utsak. Bateria bat berak aitortzen-edo du: bere asmetan «poesia solla»-ri eman dio tokia; abestiari ez; abesten dan poesia ez ote da poesia?, ta ez ote da protesta ta ez ote da gaztea?; behar ba da Lourdes Iriondo ta Benito Lertxundi ere sorta onetan egon behar luteke, «Ez dok amairu»-ko abestirik gehienak berak sortuak diralako.

Nola nahi, Euskalerriko protesta-giroa ementxe dago prosa; nor nahi begira dezake.

Bilduma hau egin duan buruak beste asmo bat ere izandu du: ahal-egia, olerkari hoietako batzuek ez omen dute beñere liburu bat argitaratzeko biderik izan; elkar bilduta egingako hauxe osatu dute; ala, bidez bakarria egiteko gai dirala erakutsi ahal izan dute.

Rikardo Arregi zanek ere zirikatu zuan argitaratzailleen piztuzulo hau. Diru-irabaztaille edo erriko lankide diran erakusteko aukera ba dute; bietatik behar da, ta neurrikoak ondo daude; baiña aitzaki onekin hura egiten ba dute, gure erriak jakin-guro du; gure olerkariaren lanak liburuaz jantzi gabe, larri gorrik, ez dituzela geratu.

Edozeinek ba du aukera bat egi-

teko eskubidea, ta neronek ere egin dudu bilduma onetan gogoko zaidanaren bereizte bat.

Egi balduruega artez oso egoki esoten dutesk ba dira bilduma onetan, eta nere gogoz Gabriel Aresti (izenik gabeko olerkia), Julian Lekuona («Hiltzaile bat bezela» ta «Eliza Po-brea»), Xabier Lete («Bide ezku-tua»), Daniel Landart («Arratske-otoitza») ta emakume bat: Amaya Lasa (izen gabeko olerki trinkoa) dira mailux.

Ba dira, noski, beste sakonak ere: Jose Antonio Arze, Jose Azurmendi, Martin Carin, Gixan Alfaro (nairz eta rimari lotuegia egon), Beñat Sarasola (Imajinario aberatsez ornitua gis-leria), Jose Angel Irigaray, Mikel A. Intxausti (au ere imajinarioz nabar-mena), Jose Maria Agirre (metro-ari lotuegi iruditzen ba zait ere), Ramon Saizarbitoria ta Ibon Sara-sola.

Hau berezkeri bat besterik ez du, noski.

Beste zerbait erantsi nahi nioke argitxo oneri: giro-berriko 25 olerkari gazte ohietatik 2 emakumeak dirala: Amaya Lasa ta Petrika Em-aruzpe; 6 olerkari Bidasoz aruntza-koak dirala; ta 7 apaziz-praileak eta 2 izatez utzi berriak (25-etik 9 Semi-nariotik pasiak, beraz).

UGALDE-tar MARTIN

[Sociedad Guipuzcoana de Edicio-nes y Publicaciones, S. A., Izarra-irarkola, 1969, 177 orri, 150 pezeta].

**HANDIK ETA HEMENDIK**

**OKER EGINDA**

Klusi dodaz Columbia-k argitaratutako azken disko biak, Oker eginda, jaunak. Ez abeslariaren aldetik (benetan onak dira), hizkuntzaren aldetik baino.

Hasteko, ez dabe euskera batua erabiltzen. Diskoan euskal editorialak euskera batua erabiltza erabagi badabe, zertan jatorriz orain Madrid-ekoak beste bide batetik?

Baina horren aparte, ortografiaren aldetik, faltaz josita dator. H-rik, bat bez, eta helango «pitxiak»: «zortu zan maitazuna». Ederazko diskoetan, «ai ba un vuro» idazten dabe?

**EICHMAN ETA BOST KANONERO**

Israeldarrak, lege internazionala alde batera utzita, Eichman hartu eben eta orain bost kanonero.

Munduanen indifferentsiaren erdian 6.000.000 israeldar gas kamaretan galdu eban herriak, bere lekioza ikasi dau: norberaren burua defenditzea norberaren eginkizuna dala.

Tristea da esatea, baina gaurko munduan egoismo gehiegi dago. Norbera ondo bizi, ta besteak on konpon. Holako mundu baten, ez da harrizke-koa bakoitzak bere burua ahal dauzan medioekin defenditzea.

**ZAHARRAK ETA GAZTEAK**

Lehengi baten irakurri neban batzuek gazte denporan zahartzen dirala, ta beste batzuek ez dirala inoiz zaharrak egiten.

**APAIZ ETA EKONTZITA**

Holanda-ko katolikusk apaiak ekontzearen alde ei dagoz. Ez dakigu denporarekin zer gertauko dan, baina nire ustez, holandarrak ez dagoz hain oker. Eta hori probateko, hor daukagu Martin Luther King. Ekontzua ta artzain protestantea izanik, norik esango dau ez zala gizon zintzoa izan?

XABIER GEREÑO

**EUSKAL DISKA BERRIAK**

**MIKEL LABOA**

**GOIZTIRI - 17**

Munduanen esker ona-Geberako aterbea-Danak ala inor ez-Lilurarik ez. Kantari honek ba ditu lehen ere beste bi diska Baionako otxe honekin egitak, sakonena, osatuena, hau dugu ordea. Bertold Brecht, jermandar teatrolarien lau poemari musika jarri dio Mikel-ek ta diska trinku bat osaturik eskemi.

**JOSEPE IRIGARAI**

**HERRI GOGOA HG - 16**

Urak dakarrena-Begiak-Herri behera-Miña ta grina. Berria dugu, abesti munduan Irigarai gaztea. Lagun artean ondo ezaguna, milla abesti zahar rormanki kan-



fatzan entzun ahal izari diogulako, hona bere lehen diska, berak sortutako lau kantakin. Ez dio horren belarrieri min egingo ta bai askore-nak gozatuko.

**JUAN MIGEL**

**HERRI GOGOA HG - 17**


Aizean dabillo-Emazte bat nahi zuen-Zer naiz ni zu gabe-Arkitzea Irinar gazte bateri eman dio sarrera Herri Gogoak bere diska sailean. Amodiozko kantak ditu maite abeslari honek, eta ezin uka pozik artu dugula bere lehen diska hau.

Ia, nafartarrak beren almena erakutsiaz beste diska asko eskaintzen dizkiguten.

**AMESLARIAK**

**CINSA-CIN - 161**

Martin Lutheri kanta-Go Marchinir-Biafra-O gu he-men.



Hau dugu Ameslariak eskaintzen diguten bigarren diska, ta zorionean izan dedilla etorria. Lehen diskak arrea hona izan ba zuan bigarren honek obageua izan-go duela esatearekin ziur gera okerrik ez dugula esaten. Bigarren diska honetan aurrerakada handia nabaritzen da, alderdi guztietatik begiratuaz. Kanta berriak bi-ziro edorrek dira ta zaharrak, musikaren aldetik, maiz entzun ba ditugu ere, euskal hitzak dituztelarik atze-gin egiten zaitzigu. Bapo Ameslariak zorionak egin dizutere lana gaitik.

JOSEBA AGIRRE



aizean dabillo emazte bat nahi zuen zer naiz ni zu gabe arkitzea

**BEOBIDE OTALLARIAREN OMENEZ, ENGLANDERAZ**

Ona emen, Mairin Mitchell, englandar idazle andereñoak, Zumaya-n aspaldin bizl danak, Beobide otallari ospetsuaren illeta oroz, englanderaz egindako olerki-antzo lanxoa, eta idazle onen euskaldun lagun batek euskal-itiz-neurtuetan jarria:

**MAIRIN MITCHELL'EK**

He walked with Christ,  
He worked for Christ;  
His Cristo incompleated when he died,  
The arms unfinshed,  
Oh! the joy of his surprise  
When Christ's own arms were opened wide  
To bear him into paradise!

**BERE EUSKELDUN LAGUNA'K**

Beti Kristo-ren bidean,  
Beti Kristo-ren aldez.  
Baña erioiz unean  
Irudia amaitu ez!  
Solfa bai, besoak ez!  
Ene! ze poza ikustean  
Kristo'k beso zabalez  
Zeruratu zuenean!

**Baserriaren alde**

EUSKAL ETA ERDAL

**Caja de Ahorros**

Municipal de San Sebastián

Banen baneko azyiak  
Ongarri ta abonoak  
Beiar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru surreratze

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavaga'ko Perira Joan etorriak.

**GUÑELESA**

Gipuzkoa'ko ta Nafarroa'ko esne onenakin gertatutako esnekiak:

- Esne Pasturizatua
- Esne solilla (esterilizatua)
- Esne autua
- Esne-galifa
- Gurña
- Yogur
- Batidua

Igara euzoa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ari) — DONOSTIA